



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Miren Illarregi Belarra
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegia Elizalde
Ainhoa Bereau Altxu
Arkaitz Mindegia Baleztena

2024ko maiatzaren 30ean, 18:00ak direnean, ezohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira

****MAITANE ERASUN SAN SEBASTIAN SARTZEN DA PUBLIKO BEZALA*****

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 4
Abstentzio 3

1.- 2024ko otsailaren 15, martxoaren 27ko eta maiatzaren 14ko aktak onartzea.

****MIKEL ERASUN SAN SEBASTIAN SARTZEN DA PUBLIKO BEZALA*****

2. UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Udalburuak gaia azaltzen du. UEMAkoen kideekin bilera ospatu zen eta 2025.urtean UEMAn sartzea erabakitzen da. Estatutuak ez dira aiegatu beraz hurrengo pleno baterako utziko da eskatutuak onartzea.

3. LAGAPEN AKTA 3. POLIGONOKO 93 LURZATIA

3.poligonoko 93 lurzatiaren HJPB onartuta eta dagokion ehuneko hamarrea ordainduta dagoela egiaztatu ondoren, adostutako lurzatiaren lagapena planeamenduan islatu behar da. Udalbatzak gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6
Abstentzio 1

1. Lagapen akta onartzen da.

2. Akordioa interesatuari eta katastroari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

4. 52768P ESPEDIENTEA

Lizentziarik gabeko obrak egin zirenez eta udal arkitektuaren txostena ikusirik 80/2023 alkate ebazpena eman zen obra geldiaraziz. Udalbatzak gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1. Udal arkitektuarekin adostu espedientearen jarraipena egiteko.

5. ESKAERAK

5.1 Dos Anjos Dos Santos Nelson jaunak 2024ko uztaileko Iturengo festetarako 2x2.50 neurriko erremolkea jartzeko baimena eskatzen du, palomitas, grofeak algodoia saltzeko. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Postu jartzeko baimena ematea eta jartzeko tokia zehaztuko zaio.
- 2.- Ordaindu beharrekoa egun batzuk lehenago ordaintzea.
- 3.- Egunero bere ingurua garbia mantendu beharko du.
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.2 Kilometroak 2024 diru laguntza eskatu dio udalari. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Kilometroak diruz ez laguntzea.
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

5.3 Pedro Francisco Mindegia Elizalde jaunak Makilipurdi parajea, 5. poligonoko 57. lurzatian, haritz amerikar probesteko eskaera egin zuen. Gaia aztertu ondoren, Udaltzakoak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Eskaera onartzea.

2.- Aprobetxamenduaren truke 30 euro kobratzea, basozainak egindako balorazioaren arabera.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.4.- Elvira Gonzalez Aguirreburualde andreak, kamioi batek 2023ko irailean Maizenea bere etxeko balkoiaren kontra jo zuen. Zubiaren ondoan kotxeak aparkatzen direlako aipatzen du eta zera eskatzen du: Zubiaren orma luzatzea, lehen zegoen bezala. Horrela autoak ez badira aparkatzen, kamioiak balkoiak hartzen duen eremuam sartzera ekiditzen. Seinaleak jartzea ere eskatzen du. Gaia aztertu ondoren, Udaltzakoak gaia aztertu ondoren, **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1. Zubiaren pareta luzatuko da.

2. Lopetxeneko paretan kale estutzen dela adierazten duen seinalea dago. Aukera bezala etxe bertan galibo batzuk jartzea.

2. Akordioa interesatuari jakinaraztea

5.5 Javier Urrutia Sagardia jaunak, Maria Teresa Sagardia Armisen andrearen izenean, 2. poligonoko 349. lurzatiko, Agiñerreka parajeko aprobetxamendua izanik Iturrengo komunala dena, duten aprobetxamenduari uko egitea eskatzen du. Gaia aztertu ondoren, Udaltzakoak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1.- 2. poligonoko 349.lurzatiaren aprobetxamenduari uko egitea onartzea.

2.- Aipatutako lurzatiaren aprobetxamendua Iturengo herriari bueltatzea.

3.- Akordioa interesatuari eta Herri Lurren atalarari jakinaraztea .

5.6 Izarne Mariezcurrena eta Saioa Gamio, Malerrekako gazteak Iturenen Ludoteka egitea proposatzen dute. Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1. Ludoteka egiteko udaletxeko ganbara utziko zen. Proiektua (zer nahi duten egin) eta baimena udalan aurkeztu beharko dute.
2. Beraien esku gelditzen da herrian galdetzea eta interesatutak dauden familiak lortzea.
3. Lan hori egiteko herritarren bat aurkeztzen bada, lehentasuna eukiko zuen.
4. Akordioa interesatuari jakinaraztea

5.7 Laura Goñi Elizalde andreak egoitza elektronikoren bidez (309/2024 sarrera zenbakia duena), Landako bidearen 17. zenbakian egindako etxebizitzarekin batera %10 ko zesioa herriarentzat egin zuen eta landare mugikorrak jartzeko baimena eskatzen du. Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. Egin zen zesiaoa publikoa da eta kalea izanda, ezin dira landare mugikorrak jarri.
2. Akordioa interesatuari jakinaraztea

6. ALKATE EBAZPENAK

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (32/2024. ebazpenetik 47/2024. ebazpena) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Jarraian Udalbatza herriko gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Ingurumen departamenduak bidalitako abereen zentzua---Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentuko ebazpena emandako baimena Amaia Ascensión Alchu Juanicorena eta Marta Legazkue Goñi--- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentuko baimen eskaerak: Amaia Alchu eta Marta Legazkue--- Itungo ostatuak hartuko dituzten oporren informazioa---Kantauri hidrografikoaren konfederazioa Aitor Herrerori emandako baimena 2 poligonoko 925 eta 191 lurzatian itxitura egiteko Nafarroako Osasun Publikoaren txostena Aurtitzko uraren egoerari buruz--- Eskolaren mantenimendurako Berotzakin egindako kontratua---401E/2024 ebazpena 61. Nafarroako buelta egitea baimenduz.

8. GALDERA-ESKAERAK

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 19:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

